

2026. URTEKO ANDRA MARI ETA SANTA EUFEMIA JAIETAKO LIBURUKO ARTIKULUAK IDAZTEKO ETA ARGITARATZEKO DEIALDI PUBLIKOA

Bermeoko Udalaren Kultura eta Hezkuntza Sailak 2026ko Andra Mari eta Santa Eufemia jaietako jai-liburuan argitaratuko diren artikuluak edo lanak idazteko eta argitaratzeko deialdi publikoa egiten du.

Helburua

Ekimen honen helburua da sorkuntza, berrikuntza, tradizioa, kultura eta jakituria bultzatzea eta zabaltzea, sortzaileei euren lanak ezagutarazteko aukera emateaz gain.

Gaiak

- Bermeoren inguruko kondairak, istorioak (benetakoak zein fikziozkoak), gertaerak, kontakizunak, ipuinak, efemerideak...
- Bermeoko kultura, hezkuntza edo gainerako arloetako sortzaileen lanak, Bermeorekin edo bermeotarrekin zerikusia dutenak, betiere iritzi-artikuluak ez badira.
- Honako gai hauei buruz idatzi daiteke, besteak beste: antropologia, folklorea, hizkuntza, historia, ahozko zein idatzizko literatura, kultura, artea, musika...

Nork hartu dezake parte

- 15 urtetik gorako edonork.

Lanen luzera

- Lan bakoitzak gehienez 9.000 karaktere izango ditu, hutsuneak barne. Gutxi gorabehera 4 orrialde izango dira.

Lanak aurkezteko baldintzak

- Partaide bakoitzak lan bat edo gehienez bi aurkeztu ditzake.
- Lanek izenburua edukiko dute eta, testuarekin batera, horretarako dagoen inprimakia beteko da (IN-E 291/02-22 edo IN-G 291/02-22):

Andra Mari eta Santa Eufemia jai-liburuko artikulua idatzi eta argitaratzeko eskaera-orria.

- Egileak IN-108 baimen idatzia betez gero, baimendu ahalko du beste pertsona batek bere izenean lana aurkezteko.
- Jai-liburuan izenburua eta egilea agertuko dira; beste datuak udalak izango ditu.
- Lanak aurkezteko modua: paperean eta euskarri informatikoan (Word formatua).
- Lanarekin lotuta ilustraziorik edo argazkirik aurkeztekotan, jpg formatuan aurkeztuko dira. Ezinezkoa bada formatu horretan aurkeztea, udalak berak digitalizatuko ditu egileak bidalitako argazkiak. Kalitatea daukaten argazkiak argitaratuko dira, epaimahaiaren iritzia kontuan izanda, eta egilearekin adostuta.

Lanak aurkezteko modua eta epea

- Lanak aurkezteko moduak:
 - Berhaz bulegoan (Ertzilla kalea, 6-8)
 - Bermeoko Udalaren egoitza elektronikoan:
<https://www.tramiteakonline.bermeokoudala.eus/vd/>
- Lanak aurkezteko azken eguna: 2026ko ekainaren 26a, 14:00ak arte.

Jai-liburuan argitaratuko den lan kopurua

- Jai-liburuan lan hauei 44 orrialde eskainiko zaizkie, gehienez.
- Gehienez ezarritako orrialde kopuru hori baino lan gehiago aurkezten badira, lan bi aurkeztu dituen egileari lan bakarria argitaratuko zaio. Argitaratzen ez diren lanek 2027. urteko edo hurrengoetako jai-liburuan argitaratzeko lehentasuna izango dute.

Jai-liburuan argitaratuko diren lanen hizkuntza

- Jatorriz euskaraz idatzitako lanak lehenetsiko dira; jatorriz gaztelaniaz edo beste hizkuntzaren batean idatzitako lanen kasuan, epaimahaiak lan horiek itzultzea erabaki lezake, egilearen baimenarekin.
- Jai-liburuaren barruan argitaratuko diren lanak nagusiki euskaraz argitaratuko dira eta gaztelaniaz argitaratuko diren lanen orrialde kopurua, gehienez ere, % 20koa izango da. "Aurkezten diren lanek %20ko kopuru hori gainditzen badute, %20ko kopuru horretara heldu

arteko aurkezte hurrenkera hartuko da kontuan, hau da, lehenen aurkezten diren lanek izango dute aukera argitaratzeko, eta gainontzekoek ez".

Argitaratzeko irizpideak

- Lan originalak eta argitaratu bakoak lehenetsiko dira.
- Lana aurkeztu ondoren, egileak ezin izango dio lana argitaratzeari uko egin.
- Argitaratuko diren lanak akats ortografiko, tipografiko edo gramatikalik edukiz gero, udalaren Euskera Sailak egingo du zuzenketa-lana. Horiez gain, epaimahaiaren iritziz zuzenketa-lan sakonagoa egin beharko balitz, egilearekin hitz eginda eta berarekin elkarlanean, Euskera Sailak hizkuntza-kalitatea bermatzeko zuzenketa lana egingo luke.
- Ez da argitaratuko indarkeria, arrazakeria, sexu-diskriminazioa, genero-diskriminazioa edo bestelako zapalkuntza-egoerak sustatzen edo justifikatzen dituen lanik, ezta epaimahaiak desegokitzen jotzen duen inolako lanik ere.
- Ez da onartuko emakumeen eta gizonen rol baztertzailak edo estereotipatuak erreproduzitzen dituen, pertsonen duintasuna gutxiesten duen edo emakumeen aurkako indarkeria —muturreko formetan zein eguneroko mikromatxismoen bidez— normalizatzen duen edukirik.
- Sexu-diskriminaziozko jarrerak, jokabideak eta egoerak normaltzen edo sustatzen dituzten diskurtsoak dituzten lanak alboratuko dira. Emakumeak gizonen mende jartzen dituzten rolak, eta baita emakumeen egoera pertsonala nahiz soziala gutxiago dela iradokitzen dutenak ere. Bereziki, gutxiengo talde bateko kide diren emakumeen kasuan, diskriminazio bikoitza edo hirukoitza ere pairatzen baitute.
- Baloratuko dira ikuspegi inklusiboak eta ez-androzentrikoak dituzten lanak, genero-rol tradizionalak zalantzan jartzen dituztenak eta emakumeen ekarpenak eta presentzia ikusarazten dituztenak. Era berean, baloratuko dira pertsona guztien duintasuna, askatasuna eta berdintasuna errespetatzen dituzten diskurtsoak lantzen dituzten lanak.
- Lanen aukeraketan, egileen artean emakumeen eta gizonen presentzia orekatua bultzatuko da, emakumeen ekarpenak bereziki aitortuz eta balioetsiz.
- Lehenetsiko ditugu emakumeak eta gizonak zein anitzak diren adierazten duten idatziak; adinari, azalaren koloreari, herritartasunari, genero-identitateari, sexu-joerari, gorputz motari, joera estetikoari,

gaitasunei eta abarrei dagokienez. Gai-zerrendetan kontuan hartuko ditugu tradizioz interesgarritzat jo izan ez diren kalitateko edukiak, hala nola zaintzari, ongizateari, osasunari eta abarrei buruzkoak, eta, hala, ikuspuntu androzentrikoak baztertuko ditugu.

- Oinarri hauetan azaltzen diren baldintzak betetzen dituzten lanak argitaratuko dira; baldintzaren bat betetzen ez duen lanik ez da argitaratuko. Lanak argitaratu ahal izateko, epaimahaiak oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen direla bermatuko du.
- Baldintzak bete arren, leku faltagatik aurkezten diren lan guztiak ezin badira argitaratu 2026. urteko jai-liburuan, aurkezten diren dataren arabera argitaratuko dira. Hau da, lehenengo aurkeztutako lanak argitaratuko dira eta gainerakoek 2027an argitaratzeko lehentasuna izango dute.

Irudiaren trataera

- Jai-liburuan erabiliko diren irudiek ere genero-ikuspegia errespetatu beharko dute, irudiek duten balio sinbolikoa eta eragin soziala kontuan hartuta.
- Ez da onartuko emakumeen edo beste pertsona batzuen gorputzak objektualizatzen, sexualizatzen edo estereotipo sexistak indartzen dituzten irudirik, ezta generoaren, sexu-orientazioaren edo genero-identitatearen arabera diskriminatzaileak edo iraingarriak izan daitezkeen adierazpen grafikorik ere.
- Baloratuko dira pertsona guztien duintasuna, askatasuna eta berdintasuna errespetatzen dituzten irudiak, emakumeen presentzia eta ekarpena modu aktibo eta errespetuzkoan ikusarazten dutenak, eta genero-rol tradizionalak zalantzan jartzen laguntzen duten adierazpen grafikoak.

Epaimahaia

- Epaimahaikideak honako hauek izango dira:
 - Udaleko Euskera Saileko, Kultura eta Hezkuntza Saileko eta Berdintasun Saileko arduradun politiko bana.
 - Euskera Saileko, Kultura eta Hezkuntza Saileko eta Berdintasun Saileko teknikari bana.

Izaera pertsonaleko datuak babestea

2026. urteko Andra Mari eta Santa Eufemia jaietako liburuko artikulua idazteko eta argitaratzeko deialdi publikoan parte hartuta, egileak onartzen du bere izenabizenen berri ematea jai-liburuan.

Datu pertsonalak eta aurkeztutako gainerako dokumentazioa deialdi publiko hau kudeatzeko erabiliko dira, Datuak Babesteko 3/2018 Lege Organikoan (DBLO) eta Datuak Babesteko Europako Parlamentuaren 679/2016 Erregelamenduan (DEPE) oinarrituta.

Arduraduna: Bermeoko Udala, antolakuntza@bermeo.eus.

Legitimazioa: interesdunaren baimena.

Hartzaileak: ez zaie daturik emango hirugarrenei, ez bada legezko betebeharra dagoela.

Eskubideak: datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko, tratamendua mugatzeko eta tratamenduari aurka egiteko eskubideak.

Informazio gehigarria: www.bermeo.eus/datuenbabesa.html

Oharrak

- Lanak aurkezteak deialdiaren oinarriak onartzea dakar.
- Egileak bere lana edo lanak aurkeztearekin batera, baimena emango du bere lana edo lanak 2026ko Andra Mari eta Santa Eufemia jaietako jai-liburuan argitaratzeko.
- Egileek ez dute jasoko ezelako ordainsaririk haien lanak jai-liburuan argitaratzeko egiten duten kolaborazioaren truke.
- Egileek lanaren egiletasuna bermatu beharko dute eta, Bermeoko Udalak, ez du inolako erantzukizunik edukiko egiletasun hori bermatzen ez bada eta egiletasunetik eratorritako arazoak sortzen badira. Hori horrela, egiletasunak ekar ditzakeen arazoan ondorioz Bermeoko Udalak kalteak jasango balitu, kalte horiek lanaren ustezko egileei jasanarazteko aukera izango du, egokiak diren bide administratibo eta judizialen bidez.
- Lanaren jabetza intelektual eta eskubide ekonomikoak udalaren esku geratuko dira; hala ere, egileek eskubide moralak mantenduko dituzte, hau da, Jabetza Intelektualaren legediak besterendu ezinezko eskubide legez aurreikusten dituen eskubideak, adibidez, egileen nortasuna uneoro eta era argian ikusgai edukitzea eta lanari tratamendu duina ematea.